

( 5+4 )

Gaiz - ki e - gi - na bar - ka, Jau - na!

**Gaizki egi na barka, Jauna!**

Dohatsu zinez bere gaizkitik garbi dena,  
 Baitu guzien barkamena  
 Dohatsu zinez hobengabetu den gizona,  
 Hak adixkide baitu Jauna.  
 Haren bihotza gezurrik gabe baita dena,  
 Haren baitan den zoriona!

Aitortu dautzut egi na nuen bekatua,  
 Ez dut erdizka salatua.  
 Erran dut erran, aitortuko dut nik egi na,  
 Barka zadazun, Jainko Jauna  
 Eta zuk, Jauna, kendu dautazu bekatua,  
 Behin betikotz barkatua.

Zu zaitut indar: gaitzetik nauzu beiratuko,  
 Salbamendua dut gerriko.  
 Gaizkileak min, Jainkozaleak bozkario:  
 Jauna tinki zain dagokio.  
 Gizon zuzenak, pitz Jauna baitan, bozkaria!  
 Bihotz garbiak, hau loria!